






Gehien mailegatutako euskarazko liburuak: 2018

	<p><u>Bihotz handiegia</u> / Eider Rodriguez N ROD</p> <p>Arroztasun sentipena dute Eider Rodriguezen sei ipuinetako pertsonaiek: nolakoa izaten ari da bikote bizi hau, zein desio ote ditu auzokide perfektuak, nor bihurtu gara sute ikaragarriaren ondoren, ginekologoak erakutsiko al dit nolakoa naizen barrutik, zer espero zuten izango nintzela, norenak dira esku hauek.</p>	
	<p><u>Jenisjoplin</u> / Uxue Alberdi N ALB</p> <p>Baldintza makurrei aurre eginez zaildutakoa da Nagore Vargas, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzera ohitua: autoritatearen kontra, benetakotasunaren bila, desafioek inarrosirik, barne bulkadaz, presaka maitatzen, bortizkeriari artez begira, arriskuari deika, edozertarako prest.</p>	
	<p><u>Arotzaren eskuak</u> / Alberto Ladrón Arana N-4 LAD</p> <p>la ezagutzen ez zuen aitona herentzian mendian galdutako etxe bat utzi diola-eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu grisa eten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat egingo du, aitona iraganaz galdetzera behartuko duena. Misterioaren sokak Frantziako Erresistentziaraino eramango du, II. Mundu Gerraren garaian</p>	
	<p><u>Honetara ezkeru</u> / Arantxa Iturbe N ITU</p> <p>Arantxa Iturberen ipuin maleziatsu hauetan ere ustegabeko asko izango dira, pertsonaiak eta gertakariak katramilatzen ikusiko dituzu isilpekoen kariaz, oker ulertuak bezainbat ager litezke susmoak.</p>	
	<p><u>Nola heldu naiz ni honaino</u> / Kattalin Miner N MIN</p> <p>Enpresan mailaz eta soldataz igotzea, herentzia bat jasotzea, etxe bat erosi ahal izatea, lagun ugari edukitzea... Arrakastaren laukitxo guztiak beteak ditu Jezabelek, argi du zer nahi duen bizitzan eta zirt-zart hartu ohi ditu erabakiak. Halako batean, ordea, txikikeria batekin paralizaturik geratuko da.</p>	

	<p><u>Mussche</u> / Kirmen Uribe N URI</p> <p>Literaturarako grinaz, bizipozez amodioan, Erresistentzian borrokan, kuriaz presoaldian... Robert Mussche idazlearen izaera eskuzabalak zirrara sortzen du, baina baita larritasuna ere. Kirmen Uriberen bigarren nobela 1937ko maiatzean abiatzen da, milaka haur Santurtziko portutik erbestera atera dituztenean</p>	
	<p><u>Connemara gure bihotzetan</u> / Julen Gabiria N GAB</p> <p>Txemak galdu egin du bere neska-laguna, Eider, auto istripu batean. Jota dagoela, Eiderren egunkari ezkutua aurkitu du, eta aurreko urtean Irlandara egindako bidaia errepikatzen abiatu da. Gazte batzuen abenturen nobela, eta maitasunari buruzko eleberria ere bai</p>	
	<p><u>Sprako tranbia</u> / Unai Elorriaga N ELO</p> <p>Benetako harribitxi bat da Sprako tranbia, lehen obra batean harrigarria den maisutasunaz idatzia. Harrigarria da gai nagusia ere, egilea gaztea izaki: agure baten eromen prozesua, izugarria izanda ere espanturik gabe kontatua; eta hunkigarria, dudarik gabe. Gaiaren gainetik, azpimarratzekoa da sentipenak transmititzeko egileak daukan modu berezia, sentimenduz artizeko estilo fin eta dotore hori.</p>	
	<p><u>Gu orduko hauek</u> / Garazi Arrula N ARR</p> <p>8 ipuinez osatua da Garazi Arrularen lehen liburua, eta azken ipuinak ematen dio izenburua obrari: Gu orduko hauek.</p>	
	<p><u>Horma</u> / Anjel Lertxundi N LER</p> <p>Itzultzailea da nobela honetako narratzailea. Kode batetik beste batera hitzak pasatzen espezialista. Bizitzan ere halatsu, kode batetik bestera pasatu beharra du mundua ulertuko badu. Maite du bere lana, baina hor sortzen zaio arazoa.</p>	